





All Jazz Era musika taldea

Abenduak 22.
22:30ean
Mendata tabernan



Antzerkiola Imaginarioa "Kaputen kanta"

Abenduak 21.
22:30ean
liburutegiko hallean

Antolatzaileak:



Babeslea:



Soraluzeko
Udala

Entzutekuak: Iñaki Larrañaga, Plaentxi Racing Team-eko kidea
Kirola: Pilota Astea abenduaren 17tik 21era bitartean

soraluzeko
hamabostekaria **167.** alea
2007ko abenduaren 6an

pil-pilean



Abenduaren 15ean

Elizak ateak irekiko ditu

**UBANE MADERA****MIKEL SANTIAGO**

EUSKARAZ BIZI GARA?

Aupa, Mikel! Euskararen Egunaren hari-ara, euskararen egoeraren gaineko errepasoa egin nahi nuke, Mikel. Izan ere, azkenaldiko pentsamendua dut euskararengatik lan handia egin dugun arren, haren biziraupena ez dagoela ziurtatuta. Esango duzu: “halaaaaa zelako negatiboa!”. Nahi nuke positibo izatea, baina erreallitateak narama bide negatibotik. Begira gure bizimoduan: umeekin euskaraz egiten dugu, telefonoz ere bai eta lagun batzuek ere bai. Askok, berriz, euskaldunak izan arren gazteleraz jarduten dute (neuk, sarriegi); ospitaleetan; justizia edo poliziarekin; administrazioan ... Adibide bat emango dizut: Jaurilaritzatik lantokira etorri zirenikustera euskarari ematen diogun tratamentua: lankideok euskaraz dihardugun, teknologia berriak, nominak, euskaraz ditugun... Harritu ziren ikustean baietz. Esan ziguten Debagoienean ez daudela halako enpresa asko. Harrituta eta oso kezkatuta geratu ginen gu horrekin. Erakutsi ziguten Euskal Herrian egunero eta egunerokotasuneko arloetan euskaraz bizitzea ez dela horren normala. Hori da erreallitatea. Zeregin handia dugu. Euskara normalizazioz erabili behar dugu. Inposatu barik. Erakutsi behar dugu euskara edozein hizkuntza modukoa dela, bizimodu modernoarekin bat datorrena. Mendeetan biziraun badu da abaliogarria delako. Erakutsi behar diogu hori erakunde, politikari, komunikabide, administrazio, etorkin, mediku, epaile, lagun...gizarteari. 🌀

“

**Mendeetan
biziraun badu,
baliogarria
delako da**

Ubane Madera

**Borondateak
irabazi behar
ditugu**

Mikel Santiago

”

Aupa Ubane! Informaziorako teknologia-aren garaian kostatu zait zure mezuaren berri izatea. Eskerrak txistulari sasoiaren landutako belarriari esker entzumenen fin daukagun oraindik!

Heldu da aurten ere abenduaren 3a eta zuk aipatzen dituzun horiek guztiak horrela izanda ere, badaukagu baikor izateko arrazoirik. Begira iezaiozu ibili dugun bideari; ez da gutxi izan aurreratu duguna.

Euskara izan dugu pasio oso gaztetatik biok. Ondo dakizu zuk ere euskaltzale izatea gainkarga bat dela bestela ere badauzkagun egiteko guztiak kontuan hartzen baditugu. Beti gabiltza ingurua aztertzen, ea euskararik entzuten ote dugun kezkatutik.

Gau batean lagun batekin Gas-teizko alde zaharrean nenbilela gazteen arteko euskararen erabilpenari buruz hasi ginen berbetan.

Inguruan ez zen ia euskararik entzuten. 20 urte baino gehiago bertan euskara irakasten daramatzan zarauztar batekin egin genuen topo. Harek gure jarduna entzutean argi esan zigun: pazientzia.

Zu pribilegiatua zara lanean non eta zertan ari zaren ikusita. Zure egunerokotasuna ez da ohikoena oraindik Plaentxian, ezta Euskal Herrian ere, baina horra heltzeko bidean baditugu Lanhitz eta Bai euskarari ekimenak. Borondateak irabazi behar ditugu eta euskaltzale guztiok batera bultzatzea lortzen badugu euskara izango dugu laster denon habia. Horretaz ziur egon! 🌀

Goguan hartzeko

Martxa hontan, aurki erderaz hitz egingo dugu euskaraz ari garelakoan.

Lazkao Txiki





Konstituzio Eguna

GUTUNAK

Abenduaren 6an espainiar estatuak bere konstituzioaren eguna ospatzen du, Euskal Herriari inposatzen zaion Konstituzioa, hain zuzen ere. Gure herriak ezezkua eman zion Konstituzioari, eta azken hamarkada hauetan Konstituzio hau izan da gure herriari ezetz esan diona. Euskal Herriarentzako muga da, herri bezala dagozkigun eskubideak ukatu eta herritar gisa erabakitzeke aukera lapurtzen digu.

Hortaz, honakoa adierazten dugu:

- Abenduaren 6an ez dugu ospatzeko ezer, bai ostera lan egiteko aukera polita. Guretzako lan eguna da, Euskal Herriaren alde lan egiteko eguna, gure herriari inposatzen zaizkion mugak altxatzeko, euskal herritarroi dagozkigun eskubide guztien jabe izateko, finean, etorkizunari ateak irekitzeko.

AHT gelditu!

Abenduaren 13an 5 soraluzetar epaituak izango gara AHTaren aurkako ekintza batean parte hartzearen. Adif-ek (Administración de infraestructuras ferroviarias) Bilbon duen bulegoan 15 bat lagun sartu ginen proiektu inposatu honen eraikuntzan duten erantzunkizuna salatzeke. Bertan gure ahotsa entzuteko aukera eman genien eta argi gelditu zen kalera begira gor plantak egiten badituzte ere, ez dutela entzumen arazorik. Ez behintzat ertzainekin telefonoz hitz egiteko. Komisaldegira eraman gintuzten eta arratsalderako kalean ginen denok.

Gai honen inguruan azkenaldian ematen ari den kriminalizazio saiakera mediatikoa ere salatzea nahidugu; El Correo bezalako tresna alienatzaileei erreparatuz gero badirudi bere iritzia entzunarazten saiatzen den edonor terrorista dela. Trena ez da

- Inposatzen zaigun Konstituzioaren aurrean Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea aldarrikatu nahi dugu: herritarrek aukera politiko guztien artean, independentzia barne, herri honen etorkizuna erabakitzeke eskubidea dute.

- Gure herria ukatzen duen Konstituzioaren aurrean lan egiteko deia zabaldu nahi dugu, baita gure herriak Lan Egutegi propioa izan behar duela aldarrikatzen duten eragile guztiekin bat egiteko deia ere.

Hortaz, abenduaren 6an udaletxearen ateak irekita izango dira, eta lanean jarraituko dugu herri honen etorkizunari ateak ireki arte.

UDAL GOBERNU TALDEA

Soraluzetik pasako baina inposaturiko proiektu honek guztiongan eragin zuzena izango du. Diru xahutze ikaragarri honek beste arlo askotan ez inbertitzea suposatuko du, euskal paisaia guztiz eraldatuko du (harrobiak, biaduktoak, tunelak), lur azpiko urak pozoindu, hiriburuak hurbildu herriak urruntzen dituen bitartean, estatu Espainiarrarekiko dependentzia areagotu, etabar luzuluze bat. AHTa egunero gure lurraldetik zehar pasa daitekeen lur hegazkin bat izango litzateke, horrek suposatuko lukeen zarata eta trabekin.

Besterik gabe Arrasaten AHT Gelditu! Elkarlana deitutako manifestaziora joateko deialdia luzatzea nahi dizuegu abenduaren 15ean arratsaldeko 5etan "Inposaketarik ez!! AHT gelditu!!" lelopean.

Soraluzeko AHTren aurkako taldea

bittartetik



Loiola Altuna
Kontrola!!!!

Aitortzen dut. Pekataria naiz. Urte batzuk dira, Tolosako inauterietan gau-pasa luziia eginda, etxera itzultzeko ordua heldu, autoa hartu eta Danba! Aurretik zihoan Anartz lankide maitarean Renault gizajoari galanta eman niola. Ondo zaude galdetu orduko Ertzainak bertan. Alkoholemia. 0,50. Positibo. Epaimahaiak urtebeteko penitentzia ezarri zidaten. Autobusetik trenera eta trenetik autobusera bi ondorio; Bat: jolasean dabilenari tokatu egiten zaiola. Batzuei, loterian bezala, botatakoa eta beste batzuei Sari Potoloa. Bigarrena, hobe dela loterian gastatzia baino taxian edo mozkorbusean gastatzea, edo konpainiarik ezean, autoko atzeko eserlekuan loaldi luze bat egiteko erabiltzea.

Orain alkohola ez ezik beste era bateko sustantzien bila hasi dira. Akabo afalosteko peta, akabo mozkorra jaisteko.... Dena den, nahikoa da kalada bat positibo emateko, edo bi? Zenbat ordu itxaron behar dira azken kaladatik? Noski lehen kontrolak gauez eta gazteei. Beste batzuk ez dute sustantziarik hartzen ala?

Gizaki pekatariok ahulak izaten jarraituko dugu. Baina autoa hartu ordez taxia edo mozkorbusea hartuta, kontrola ez da KONTROLA!!!! bihurtuko.



Iñaki Larrañaga

“Soraluze Racing Team” Slot taldekoa

Noiztik diharduzue “Escalextric”ekin jolasten?

Oin hiru urte sartu ginan Ezozi Bideko lokal honetan eta hemen ibiltzen gara. Danorigustatzen jakuz rallyxak eta igoerak, mundu horren zaliak gara. Umia nintzala, lagun bati erosi zotsen Escalextric bat eta nik ez neban euki. Orduko frustraziñotxo baten emaitza da hau.

Nun lortzen do-zuezu autuak eta?

Denda espazializatueta erosten doguz, Gasteiz edo Irunen. Interneten eta aldizkari berezixetan be lortu leikez. Jostailu dendetan, “Escalextric” tipikua egoten da, umiendako modukua, baina honi Slot esaten jako; “Excalextric” marka bat bakarrik da.

Zenbat denpora emoten do-zuezu autuak moldatzen?

10 ordu pasatu geinkez bakoitzaikin. Autuak plastiko zkoerrek bixuekin etortzen dira, eta guk aluminiozko lllantak, gurgil barrixak, motor potentiaguak... ipintzen dotseguz, benetako autueri moduan. Denbora gehixago pasatzen dogu autoei aldaketak egiten jolasian baino.

Esango dotsue umien gauzia dala, ezta?

Bai, batzutan bai, baina desberdina da. Umiendako autuak imana eukitzen dabe, eta ez dira bidetik irtetzen, azkar juanda be. Guk imana kendu egiten

dotsagu eta orduan polikixago juan bihar zara kurbetan eta. Txapelketetan be imanik bare izaten da.

Txapelketetara juaten zarie?

Ez, gure artian ibiltzen gara. Baina danetariko txapelketak dare, 1 Formulatik hasitta, Rallyxak arte, kamioienak, todoterrenuenak... Benetan egitten diran konpetiziño danak, eskala txikixaguan etaratzen dira gero. Guk dauzkagun autuak 1:32 eskalakuak izaten dira.

Herrixan ez dozue erakustaldirik egin inoiz?

Ez. Lokala eskatu genduanian Udaletxian, urtian erakusketa bat egin bihar genduala eta tarteke jendiari zabaldu bihar gontsala esan zoskuen. Orduan, gure aldetik ipini genduan. Mutiko batzuk etortzen dira pixkaten jolastera eta ikusterak. ☺

Iñakik orduak pasatzen ditu autoak moldatu eta erabiltzen



Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoia kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ARMENDIA
JATETXEA

Ezozi Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

HNOS. BENITO
ANAIAK

ETXKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen 300 herritar inguru batu ziren



Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna izan zenez, ordu erdiko elkarretaratzea egin zen Plaza Barrixan, Udaleko Emakume Batzordeak deituta,

“Emakumeen aurkako erasorik ez!” lelopean. Udaleko alderdi politiko guztiek eta 300 bat lagunak hartu zuten parte bilkuran.



80 urtetik gorakoen festa



M. Santiago

Liturgia, bazkaria eta dantzaldia izan zituzten 80 urte edo gehiago dituzten 86 plazentziatarrek. Itxaropenen bazkaldu ostean, andra eta gizon nagusienak omendu zituzten: Ignacio Hernabide, 90 urterekin eta Trinidad Larrañaga, 94 urtekoa bera.

ANVren independentzia aldarria



Zapatuan ekitaldi politikoa egin zuen ANV independentzia eta Euskal Estatua aldarrikatzeko. Euskal Herriak bere burujabetzari esker soilik lortuko duela garapen askea adierazi zuten, eta EAE-ANV ilegalizatzea independentzia allean eskubideak urratzea litzatekeela.

Kontenedoreak erre dituzte

Barixakutik zapaturako gauean zenbait zabor kontenedore erre zituzten Estazio kalean. Hondakinak hurrengo egunean bertan jaso zituzten.

Gabonetako zuhaitzaren partez, Olentzero eta Mari Domingin

Aurten Olentzero eta Mari Dominginek hartuko dute Gabonetako zuhaitzaren lekua. Udalak arrazoitu duenez, zuhaitza ipintzeko 4.500 euro inguru gastatzen ziren urtero eta zuhaitza ezin izaten da bererabili; Olentzero eta Mari Domingin, ostera, aurten eginda, datozen urteetan ere ipini ahal izango dira, eta haien estalpea urteko beste ekintza batzuetarako erabiliko da. Egurrezko estalpea eta pertsonaiak Angel de la Torre arotzak eta Tere Guenetxea eskulangileak egingo dituzte.

Berbalagunen batzarra

Berbalagun programan dihardutenek edo parte hartu nahi dutenek bilera izango dute abenduaren 10ean, astelehena, iluntziko 7etan AEK Euskaltegian.

Atxiloteten kontra manifestazioa

18/98 auziagatik izandako atxilotetak salatze aldera, manifestazioa egin zen zapatu arratsaldean herrian, Askatasunak deituta. 60 lagun inguru batu zen protesta egiteko.

Jangela zabaltzeko DBHko ikasleentzat

Lehen bazkaria azaroaren 28an egin zuten institutuko ikasleek jantoki berrian. Ikastola zaharrean edo gaur egungo Musika Eskolako lehenengo solairuan dago jangela. Auzolan enpresa arduratzen da bazkaria ekartzeaz eta zaintzaile bi izaten dituzte. Egutero hamar bat ikasle izaten dira.

Ohiko bazkaltiarrez gain, ikasleentzako edonork erabil dezake zerbitzua, 24 ordu aurretik adieraziz gero. Bazkari-txartelak 3,80 euro balio du. ☺



Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu da herrian

Hainbat ekimen izan ziren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta. Institutuko ikasleek beren lanak ipini zituzten Udaletxeko balkoian eta iluntzean Eusko Ikaskuntzak prestatutako bideoa ikusgai ipini zen tabernetan. Pil-pilean Euskara Elkarteak murala margotzen dihardu Sagar Errekako zubipean, “Euskara da euskaldun egiten gaituena” esaldia Sorluzen berba egiten diren hizkuntzetan idatziz.



Zazpi hizkuntza erabiliko dituzte

Atxolingo jaiotza ipinita

Abenduaren batean ipini zuten Atxolingo mendi puntan gabonetako jaiotza. Errege eguna pasatu artean hantxe egongo da mendizaleen bistara.



M. Valero

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 beheak
Tfnoa 943 75 16 46

MENDIZABAL
OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefona 943 75 20 91
Bategiata, 6
Telefona 943 75 13 99
SORLUZE

MENDATA taberna

Pizzak • Bokadilloak • Sukaldetik zure etxera!! • Kazuelitak • Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
igandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDEGIA

CERTICAR
EUSKALITAKO GANADU-HARAGIA
CARNÉ DE VACUO CERTIFICADO

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Sorluze

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Sorluze
GIPUZKOA

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Elizako ateak zabaltzeaz

645.000
euro eman
dituzte
herritarrek

8 urte iraun dute 700 urte baino gehiago dituen Santa Maria La Real Elizaren zaharberritze lanek. Berez neoklasikoa izan arren, ezaugarri moderno berrieekin irekiko ditu ateak hilaren 15ean, urtebete pasa itxita egon eta gero.

Garai bateko margoak berreskuratuta

“Pinttau, ez da pinttau ezer. Bakarrik garbittu egin da. Lehen dana bel-beltza ikusten genduan”, dio Abel Olaizola, Obra

Batzordeko kideak. Erre-
taulak 7 margo geru-
za zituen. “Barriz-
teruzkoan gaine-
tik emoten juaten
zian.” Errestauro-
dore batek ikertu
ostean, egokiena
hirugarren geruza

zela ondorioztatu zuen,
egoera onenean zegoelako eta
koloreak eta materiala egokienak
zirelako holako eliza neoklasiko
batentzat. “Gizurra dirudi doze-
na erdi neskak pazientzia mordo
batekin, algodoi pixkatekin eta
pintzeltxo batekin zelako lanak
egitten dittuen”, dio Abelek.

San Blas eta San Antonio geratuko dira

Santa Barbararen kapilla dena
zitzak janda zegoenez, bota egin
dute. Bertin Kalbarioko erretau-
la ere, ez zegoelako errekupe-
rtzeko modurik. Irudi asko gorde
egin dituzte, plastikoekin batuta,
inork dirua eman eta berrizteko

zain. San Blas eta San Antonio
dira agerian geratuko diren san-
tu bakarrak, herriarentzat duen
esanahiagatik lehenengoa, ezi-
nezkoen santua delako bigarre-
na.

Usoen aurkako neurriak

Eliz ataria uso askoren bizitoki
izan da orain artean, baina he-
mendik aurrera ez dute bertan
geratzeko lekurik izango. Teila-
tupeko egurrezko habeen gainak
hiltze moduko batzuekin bete
dituzte, usoek bertan geratzetik

izan ez dezaten. Eliz ataria garbi
mantentzeaz gain, usoen zirinak
egurra hondatzen jarrai ez dezan
hartu dute neurri hau.

Apaizetxeko kapilla, kultur areto

Azken urte eta erdian Apaize-
txeko kapillak Elizari zegozkion
funtzio guztiak bete ditu. Egu-
neroko mezak, hiletak, ospaki-
zunak... egin izan dira. Eliza za-
baltzearekin bat, ordea, Kapilla
birmoldatu egingo dute kultur
ekimenak egiteko areto moduan
erabili ahal izateko. Udalak eta
herriko apaizak herrian dagoen
kultur azpiegitura ezari irtenbi-
de bat emateko adostu dute.

Inauguraziorako elizkizun berezia

Abenduaren 15ean elizkizun
berezi batek irekiko ditu Eli-
zako ateak. Iluntziko zazpie-
tan izango da eta bertan egongo
dira, Gipuzkoako gotzaina, Foru
Aldundiko eta Udaleko ordezkari-
ak, Soraluzeko erlijiosoak eta
bertan apaiz izandakoak eta he-
rritarrak. Ezozi Ama Abesbatzak
abestuko du, Iñigo Alberdik or-
ganoan lagunduta. 🎵

7 erreportaia



Medailloiak eta erretaula: garbito eta jatorrizko margoak berreskuratu dituzte




Lurzoru guztia berritu dute



Barrera arkitektonikoak kendu dituzte eta sakristia berria egin, kumun eta guzti



Eliz ataria berriztu dute eta usoen aurkako iltzeak ipini dituzte



30 batioko argiztapena, 60 batioko berogailua eta megafonia sistema modernoak ipini dituzte. Konfesioko kapilla modernoa irudian

Diru kontuak:

Kanpoko berrizte lanak (1999tik 2004ra):
34.885.009 pezeta
Barruko berrizte lanak (2006tik 2007ra):
1.719.477 euro

Diru iturriak fase honetan:

Aldundia (%70), herritarren laguntza
eta kreditua (Gotzaintzak abalatua)
Herriarengandik jasotako dirua obra osoan:
645.000 euro inguru

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Elizian inauguraziora juateko asmorik badaukazu?

Abenduaren 15ean zabalduko ditu ateak Elizak eta meza merezi bat eginda ospatuko da.

ALAZNE FERNANDEZ
ikaslia



IRAULTZ ARLUZIAGA
zerbitzarixa



MARIA LUISA ALBERDI
jubilatua



JUAN ANTONIO VARELA
mekanikua



Ez, ez dot uste juango naizenik, ez naiz sekula juaten eta. Hileta elizkizunen bat edo daguanian juaten naiz baina ataixan geratzen naiz. Ez jataz elizak gustatzen.

Eznaiz juango. Uste dot Eliziak alde txarrak gehixago daukazela onak baino. Egitaraua zein dan ikusittakuan, kontzerturen batera juango naiz, onak darelara entzun dot eta.

Bai, bai. Ez nao ikusitta, zabaldu zebe-nian kanpuan nengualako, baina esan doste oso politta daguala eta ikusteko gogo haundixakin nao. Normalian juaten naiz mezetara. Leku elegantia da gainera.

Ba bai, leku barrixa zela geratu dan ikus-tera juango naiz. Bestela, batzuetan juaten naiz Elizara, batez be hiletetan edo kontzerturen bat daguanian.

KOMIKIXA



Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Alljazzera eta Antzerkiola
Imaginarioaren emanaldiak



Abenduaren 21 eta 22rako musika eta antzerki lan bana antolatu ditu Pil-pilean Euskara Elkarteak, Topaguneko Kultur Errotaren barruan.

Kaputen kanta

Antzerkiola Imaginarioak Kaputen kanta, formatu txikiko antzerki musikala eskainiko du. Bi aktoresek negar-kantariaren lanak egiten dituzte hileta ospakizun berezi batean. Barixakuan, abenduaren 21ean, 22:30ean liburutegiko hallean.

Alljazzera, funk doinuekin

Gorlizko boskoteak funk eta jazz doinuek eskainiko ditu, gitarra, baxua, bateria, saxoa eta ahotsarekin. Abenduaren 22an, 22:30ean Mendata tabernan.

Musika eskolaren Gabonetako kontzertua

Abenduaren 19an, eguaztenean, Musika Eskolako ikasleek urteko azken kontzertua eskainiko dute. Aspaldian ez bezala, Eliza nagusian izango da, iluntzeko 19:45ean. Hileta elizkizunik balego, ordu laurden atzeratuko da.

Harriet Tubman talde estatubatuarrak jazz-rock kontzertua emango du

Euskal Herrian egingo duen biran, Soraluzez gain, Basauri, Donostia, Zornotza, Urretxu eta Gasteizen izango da Harriet Tumban taldea. Jazz-rock estiloa eta gitarra ariketa eta erritmo aldaketa konplexuak egiten dituen hiukotea da. Lou Reed,

Sonny Sharrock, Muah Richard Abrams eta Henry Rollins bezalako musikariekin lan egin dute. Abenduaren 16an, liburutegiko atarian, iluntzeko 20:00etan izango da Udalak antolatutako kontzertu hau.



Harriet Tubman: Brandon Ross, JT Lewis, Melvin Gibbs

Txontxongilo saioa izango da Behibis taldearekin datorren astean

Abenduaren 12an Behibis taldeak "Rosierosi" antzezlanaren aurkeztuko du. Txontxongilo saioa izango da, 5-11 urte bitarteko umeei zuzendua.

"Hansel eta Gretel" edo "Mila eta bat gauak" ipuin klasikoaren eraginarekin Rosiren istorioa kontatuko dute. "Rosik markako gauzak erostea baino ez du buruan, eta gainerako gauza guztiak, Jon Kepa laguna barne, mespretxatu egiten ditu. Gurasoek ezin diote eman eskatzen duen guztia eta merkataritza gunen batean abandonatzea erabakiko dute. Han, kontsumis-



moaren jenioaren atzaparretan eroriko da eta haren esklabo bihurtuko da."

Emanaldia Udal liburutegiko Hallean egingo da, arratsaldeko 5etan.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



KM
Desing

Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

ARGAZKI ZAHARRA



MUTIL KUADRILLIA

1 1965-1966 urtekua dalakuan dare argazkixa
ekarri dabenak.

Zenbakixekin izendatuta dare:

- 1- Julian Zarobe
- 2- Carlos Arostegi
- 3- Jose Mari Alvarez
- 4- Julio Makinai
- 5- Agustin Ezenarro "Kakua"
- 6- Javi Elizburu "Bisarra"
- 7- Jesus Jiménez "Txito"
- 8- Jose Luis Badiola 🌀

Oroigarriak, eskelak, eskertzak...

Bidali pilpilean@euskalnet.net helbidera
edo deitu 943 75 13 04 zenbakira



Egin zaitez
Berbalaguna!

Euskara praktikatzeko aukera!
Euskaldunberriak euskaldun zaharrekin!

Berbalagunentzat eta parte hartu nahi dutenentzat,
bilera abenduaren 10ean AEK Euskaltegian, iluntzeko 7etan.

Babesleak:



SORALUZKO



Soroluzeko
Udala

Pil-pilean Euskara Elkarte
Tlf: 943 75 13 04
Emaila: pilpilean@euskalnet.net



Tornileria-estanzazioa
eta
Extruzioa hotzean



GOL industriak S.A.:
Sagar Erreka, 19 45PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxe: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



tel: 943 75 20 81

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarran 22 behea, telf: 943751789



Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

**BERTSO SAIOA
ELGOIBARREN**

**HERRIKO ANTZOKIAN
ABENDUAK 27,EGUENA**

22:30



Ametz Arzallus
Uxue Alberdi
Maialen Lujanbio
Xabier Paya
Aitor Sarriegi

